

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

USURBILGO UDALA

Iragarkia

Usurbilgo Udaltzatza Plenoak, 2025eko azaroaren 26ean egindako ohiko bilkuran, besteak beste honako erabakiak hartu ditu:

Lehena: 2026-2028 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzea.

Bigarrena: Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN erabaki honen berri ematea.

Usurbil, 2025eko azaroaren 27a.—Agurtzane Solaberrieta Mesa, alkatea. (8153)

2026-2028 DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA

- * Usurbil Bizi: Herri bat, lau misio.

«Usurbil bizi: herri bat, lau misio» izeneko proiektuaren baitan, azken urteotan Usurbilgo Udala lanean ari da misioen baitako udal jarduna eta gobernantza eredia eraikitzeko. Definiturik daude herri gisa ditugun erronka nagusiak, eta ezarriak daude, halaber, erronka bakoitzari ezarri dizkiogun misioak, eragile ezberdinekin batera ko-sorkuntzan adostu direnak. Misioak, azken batean, erronka bakoitzari ezarritako helburu inspiragarri eta anbiziotsuak dira, eragile eta herritarrak eraldaketarekin motibatze eta eraldaketara batze, eta, hortaz, herri gaitasunak zuzendu eta norabide bateratuan kokatzeko.

- * Erronka eta misioak.
— 650 Usurbil Bizi Proiektua.

Kultura, euskara eta herri-identitatea, tokiko ekonomiaren motor bilakatzeko helburuz, 650 Usurbil Bizi herri proiektua osatu zuen udalak iazko legealdian, eraikuntza kolektiboan. Ekonomia lokalari bultzada ematea da helburu nagusia, eta, horretarako, turismo eredu berritzaile eta eraldatzaile bat osatu zen, eta horren arabera turismo plan eta eskaintza oso bat garatzen ari da, herri identitatean, baloreetan, ondarean eta martxan dauden proiektu eraldatzaileetan oinarrituta.

- Zaintza.

Bospasei urteko gogoeta kolektibo eta komunitario zabala egin da Usurbilen, pertsona ardatz duen arreta eredia erdigunean jarrita, Usurbil herri zaintzaileago izateko eta tokiko zaintza ekosistema berri bat eraikitzeko helburuz. Erronka horri misio bat ezarri diogu, lanketa horretan ari garan eragile publiko, komunitario eta pribatuen artean adostutakoa.

- Trantsizio ekosoziala.

Usurbil jasangarriagoa eta bizigarriagoa zerumugan, ezin dugu Usurbil ulertu trantsizio ekosozialaren eronkari erantzun gabe. Hala, herri misio bat ere finkatu zaio, parte-hartze prozesu batean.

2030. urterako Usurbil klima ikuspuntutik neutroa izango den herria bihurtzea, balioen eraldaketan, mugikortasun eredu jasangarrian, baliabide naturalen zaintzan eta bertako kontsumo eredu arduratsuan oinarrituko den trantsizio justua garatuz.

AYUNTAMIENTO DE USURBIL

Anuncio

El Pleno del Ayuntamiento de Usurbil, en sesión ordinaria celebrada el día 26 de noviembre de 2025, ha adoptado entre otros los siguientes acuerdos:

Primero: Aprobar el Plan Estratégico de Subvenciones 2026-2028.

Segundo: Dar publicidad del presente acuerdo en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Usurbil, a 27 de noviembre de 2025.—La alcaldesa, Agurtzane Solaberrieta Mesa. (8153)

PLAN ESTRATÉGICO DE SUBVENCIONES 2026-2028

- * Usurbil Bizi: Un pueblo, cuatro misiones.

En el marco del proyecto «Usurbil bizi: un municipio, cuatro misiones», en los últimos años el Ayuntamiento de Usurbil está trabajando en la construcción de la acción municipal y el modelo de gobernanza dentro de las misiones. Los principales retos que tenemos como pueblo están definidos y también están establecidas las misiones que hemos establecido para cada uno de ellos y que han sido consensuadas en co-creación con diferentes agentes. Las misiones son, en definitiva, objetivos inspiradores y ambiciosos que se marcan para cada reto, motivando y uniendo a agentes y ciudadanía con la transformación y, por tanto, alineando y situando las capacidades de país en una dirección común.

- * Retos y misiones.
— Proyecto 650 Usurbil Bizi.

Con el objetivo de convertir la cultura, el euskera y la identidad popular en el motor de la economía local, el ayuntamiento completó en la legislatura pasada, en construcción colectiva, el proyecto 650 Usurbil Bizi. El objetivo principal es el impulso a la economía local, configurando un modelo turístico innovador y transformador que está desarrollando un plan y una oferta turística integral basada en la identidad popular, los valores, el patrimonio y los proyectos transformadores en marcha.

- Cuidados.

En Usurbil se ha llevado a cabo una amplia reflexión colectiva y comunitaria de cinco o seis años, poniendo el modelo de atención centrada en la persona en el centro, con el objetivo de hacer de Usurbil un pueblo más cuidador y construir un nuevo ecosistema de cuidados local. A este reto nos hemos marcado una misión consensuada entre agentes públicos, comunitarios y privados que estamos trabajando en esta tarea.

- Transición ecosocial.

Usurbil más sostenible y habitable en el horizonte, no podemos entender Usurbil sin responder al reto de la transición ecosocial. Así, también se le ha consolidado una misión popular en un proceso participativo.

Convertir Usurbil en un pueblo climáticamente neutro para 2030, desarrollando una transición justa basada en la transformación de valores, el modelo de movilidad sostenible, la preservación de los recursos naturales y un modelo de consumo local responsable.

– Udala Gertu.

Urteotan pilatutako esperientziak eta ezagutzak gidatuta, udal barruan eraldaketa sakona abiatu da, XXI. mendeko gizarte honek dituen erronka konplexuei erantzuteko. Hiru norabidetan ari dira aldaketak sustatzen: batetik, udal egituraketa eta funtzionamendua aldatu da, eta udala hiru eremu zabaletan antolatuta da (herritarrak, lurraldea eta antolaketa); bestetik, udala digitalizatzeko urratsak egiten ari da; eta, hirugarrenik, misioen baitako gobernantza eredu berria osatu nahi da.

Aldaketon helburua argia da: zerbitzu publikoa indartzea eta udala herritarrengandik gertuago egotea.

Misioen bitartez, beraz, herriko pertsona eta eragileak konektatu nahi dira, elkarrekin lanean jarri, misioen mesedetan elkarlan publiko-komunitario eta pribatuak gorpuzteko.

Hain justu, hori guztia ahalbidetzeko, dirulaguntzen plan estrategiko hau eta planaren indarraldian abiatuko diren dirulaguntza lerroak logika honetara lerrokatu dira, izan ere, dirulaguntza politika bada akuilu, bada tresna, herriko eragileak misioetara motibatu eta lerrokatzeko.

ATARIKOIA

Oinarrizko izaera duen Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 8.1 artikulua honako hau dio: «administrazioko organoek edo dirulaguntzak ezartzea proposatzen duten beste guztiek, alde aurretik, Dirulaguntzen Plan Estrategiko batean zehaztu beharko dituzte horien aplikazioarekin lortu nahi dituzten helburuak eta eraginak, horiek guztiak lortzeko behar den epea, ustez egongo diren kostuak eta finantzazio iturriak. Plana burutzeko ezinbestekoa izango da beti aurrekontuen egonkortasunerako helburuak betetzea».

Azaroaren 17ko 38/2003 Legeko hamahirugarren xedapen gehigarriak ezartzen du legezko arau edo erregelamenduetan aurreikusitako politika publikoei buruzko plan edo programak Dirulaguntzen Plan Estrategikotzat joko direla edo 38/2003 Legeko 8.1 artikuluan aurreikusitako edukia jasoko dutela.

Dirulaguntzen Lege Orokorra beste urrats bat da sistema ekonomikoa hobetzeko eta arrazionalizatzeko prozesuan. Legea zuzentzen duen printzipioetako bat gardentasuna da, eta horrek modu zuzenean du eragina dirulaguntzetarako gastu publikoaren kudeaketaren eraginkortasun eta efizientzia mailaren igoeran.

Zentzu horretan, dirulaguntzei buruzko informazio gehiago izateak merkatuan eragina izan ditzaketen distorsio eta interferentziak kentzea ahalbideratuko du, eta administrazio publikoaren jardunen osagarritasuna eta koherentzia erraztuko du, edozein motako gainjartzea ekidinez.

Eraginkortasuna hobetzeko dirulaguntzei buruzko Plan Estrategikoa egitea aurreikusten du araudiak. Plan hori dirulaguntzak sortu aurretik egin beharko da.

Plan hau hainbat urtetarako izateko bokazioz egin da, beti ere urtero beharrezko izan daitezkeen aldaketak egin beharko bazaizkio ere.

Horregatik, Udal honek Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu du. Planak ondorengo artikulua ditu:

I KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.

Dirulaguntzen Plan Estrategikoak programa izaerako kudeaketa tresnak dira.

– Udala Gertu.

Guiados por la experiencia y el conocimiento acumulado a lo largo de estos años, se ha iniciado una profunda transformación intramunicipal para dar respuesta a los complejos retos a los que se enfrenta esta sociedad del siglo XXI. Se están impulsando cambios en tres direcciones: por un lado, se ha modificado la estructuración y funcionamiento municipal, y el ayuntamiento se ha organizado en tres amplios ámbitos (ciudadanía, territorio y organización); por otro lado, se están dando pasos para la digitalización municipal; y, en tercer lugar, se pretende configurar un nuevo modelo de gobernanza dentro de las misiones.

El objetivo de estos cambios es claro: reforzar el servicio público y que el ayuntamiento esté más cerca de la ciudadanía.

A través de las misiones se pretende, por tanto, conectar a las personas y agentes del municipio, trabajar conjuntamente para materializar colaboraciones público-comunitarias y privadas en beneficio de las misiones.

Precisamente, para posibilitar todo ello, el presente Plan Estratégico de Subvenciones y las líneas subvencionales que se pondrán en marcha durante su vigencia se han alineado a esta lógica, ya que si la política subvencional es un acicate, hay un instrumento para motivar y alinear a los agentes locales a las misiones.

PREÁMBULO

El artículo 8.1 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, que tiene carácter básico, establece que «Los órganos de la Administración o cualesquiera entes que propongan el establecimiento de subvenciones, con carácter previo, deberán concretar en un plan estratégico de subvenciones los objetivos y efectos que se pretenden con su aplicación, el plazo necesario para su consecución, los costes previsibles y sus fuentes de financiación, supeditándose en todo caso al cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria».

La disposición adicional decimotercera de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, establece que los Planes y Programas relativos a políticas públicas que estén previstas en Normas legales o reglamentarias tendrán la consideración de Planes estratégicos de Subvenciones o recogerán el contenido previsto en el art. 8.1.de la Ley 38/2003.

La Ley General de subvenciones supone un paso más en el proceso de perfeccionamiento y racionalización del sistema económico. Uno de los principios que rige la Ley es el de la transparencia que redundará de forma directa en un incremento de los niveles de eficacia y eficiencia en la gestión del gasto público subvencional.

En este sentido, una mayor información acerca de las subvenciones hará posible eliminar las distorsiones e interferencias que pudieran afectar al mercado, además de facilitar la completitud y coherencia de las actuaciones de las distintas Administraciones Públicas evitando cualquier tipo de solapamiento.

Para mejorar la eficacia, se prevé en la legislación que se proceda a elaborar un Plan Estratégico de Subvenciones, con carácter previo al nacimiento de las subvenciones.

Este Plan tiene vocación de plurianual, con las revisiones que sean necesarios hacerse anualmente.

Por ello, este Ayuntamiento aprueba el Plan Estratégico de Subvenciones cuyo articulado figura a continuación:

CAPÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.

Los Planes Estratégicos son instrumentos de gestión de carácter programático.

2. artikulua.

Usurbilgo Udalak 2026-2028 aldian eman behar dituen dirulaguntzak honako hauei egokituko zaizkie:

- Usurbilgo Udalaren dirulaguntzak arautzeko ordenan-tzan (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN 2008/07/01) xedatutakoari.
- Dirulaguntzen Lege Orokorrari.
- Plan Estrategiko honi.
- Dagozkion hitzarmenei.
- Dirulaguntzak emateko egingo diren oinarriei eta dago-kion deialdiei.

3. artikulua.

Plan honetan aurreikusitako dirulaguntzak eraginkorrak iza-teko, dagozkion diru-izendapenak sartu beharko dira urte bakoiz-teko udal aurrekontuetan, eta dirulaguntza horiek emateko oi-narri arautzaileak onartu beharko dira.

Diru-laguntzak ezartzeko, aurrekontu-egonkortasuneko hel-buruak bete beharko dira; beraz, onartzen diren aurrekontu-es-leipenak eta dirulaguntza horiek emateko oinarri arautzaileak helburu horietara egokituko dira une bakoitzean.

4. artikulua.

Dirulaguntza Plan Estrategiko hau onartzeak ez du inolako eskubiderik sortzen onuradun izan daitezkeenentzako, eta ezin izango dute inolako kalte ordainik edo konpentsaziorik eskatu plana ez bada bere horretan gauzatzen.

5. artikulua.

Plan honen printzipio orokorrak honako hauek dira:

* Publizitatea eta lehia askea, funts publikoen banaketan objektibotasuna, gardentasuna, publikitatea, lehia eta berdinta-suna bermatzen dituen aldez aurreko deialdi baten bidez. Nolanahi ere, zuzeneko emakida egin ahal izango da, aplikatu beha-rreko arauan ezarritakoaren arabera aldez aurretik behar beza-lako aurrekontu-esleipena izan beharko du.

* Aurrez deialdia ezarritako irizpide objektiboen arabera egingo da emakida, onuradun izan daitezkeenak irizpide horiek aurrez ezagutzen dituztela bermatzeko.

* Ezarritako helburuak lortzeko eraginkortasuna eta bali-a-bide publikoak esleitzeko efizientzia. Ebaluazio eta neurketa ho-ri egin beharko da, bai kuantitatiboki, bai kualitatiboki.

* Dirulaguntza eskatzen duten erakundeen helburuak diruz lagundutako jardueretan berdintasunaren eta diskriminaziorik eza-ren printzipioetara egokitzen direla kontrolatzea eta aztertzea.

* Plan Estrategikoaren egokitasuna uneoro egiaztatzea. Hau da:

- Plana gizarte terminoetan justifikatzea.
- Planak kontuan hartzen dituen herritarren beharrak.
- Finantza gaitasuna.
- Udalak gai horretan duen eskumenaren azalpena.

6. artikulua.

Dirulaguntzak emateko eta, beraz, Dirulaguntzen Plan Estra-tegikoa gauzatzeko eskumena duen organoa dagozkion gastua baimentzeko eta xedatzeko eskumena duen organoa izango da. Nolanahi ere, organo horiek beste batzuen esku utzi ahal izango dituzte dirulaguntzak emateko eskuduntzak, tokiko legedian hala aurreikusten bada.

Hortaz,

– Dirulaguntza programak aurrekontu zuzkidura egokia eta behar bestekoa egotearen menpe daude.

Artículo 2.

La concesión de subvenciones por el Ayuntamiento de Usur-bil durante el periodo 2026-2028 se ajustará a lo dispuesto:

- En la Ordenanza reguladora de las subvenciones del Ayun-tamiento de Usurbil (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa 01/07/2008).
- A la Ley General de Subvenciones.
- Al presente Plan Estratégico.
- A los correspondientes convenios.
- A las bases reguladoras de las subvenciones y sus con-convocatorias correspondientes.

Artículo 3.

El establecimiento efectivo de las subvenciones previstas en este Plan requerirá la inclusión de las consignaciones corres-pondientes en los Presupuestos municipales de cada año, y la aprobación de las bases reguladoras de su concesión.

El establecimiento de subvenciones queda supeditado al cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria, por lo que las consignaciones presupuestarias que se aprueben y las bases reguladoras de su concesión se acomodarán en cada momento a dichos objetivos.

Artículo 4.

La aprobación del presente Plan Estratégico de Subvencio-nes no supone la generación de derecho alguno en favor de los potenciales beneficiarios, que no podrán exigir indemnización o compensación alguna en caso de que el plan no se lleve a la práctica en sus propios términos.

Artículo 5.

Son principios generales de este Plan los siguientes:

* Publicidad y libre concurrencia mediante convocatoria previa en la que se garantice la objetividad, transparencia, pu-blicidad, concurrencia e igualdad en la distribución de fondos públicos, ello sin perjuicio de la posible concesión directa que, de conformidad con lo establecido en la norma aplicable, deberá contar con la debida consignación presupuestaria previa.

* Concesión conforme a criterios objetivos previamente es-tablecidos en la convocatoria a fin de garantizar el conocimien-to previo de los mismos por los potenciales beneficiarios.

* Eficacia en el logro de los objetivos marcados y eficien-cia en la asignación de recursos públicos, debiendo procederse a dicha evaluación y medición tanto en su vertiente cuantitativa como en su vertiente cualitativa.

* Control y análisis de la adecuación de los fines de las en-tidades solicitantes a los principios de igualdad y no discrimina-ción en el ejercicio de las actividades subvencionadas.

* Verificar de forma constante la pertinencia del Plan Es-tratégico. A saber:

- Justificación del Plan en términos sociales.
- Necesidades de la ciudadanía a las que atiende.
- Capacidad financiera.
- Explicación de la competencia municipal en la materia.

Artículo 6.

El órgano que tiene atribuida la competencia de concesión de subvenciones y, por tanto, la ejecución del Plan Estratégico de Subvenciones, será el órgano competente facultado para la autorización y disposición del gasto correspondiente, sin perjui-cio de que dichas atribuciones puedan ser delegadas en los tér-minos previstos en la legislación local.

Por tanto,

– Los programas de subvenciones quedarán condicionadas a la existencia de dotación presupuestaria adecuada y suficiente.

– Usurbilgo Udalak horretarako onartutako aurrekontu araeutan aurreikusitakoaren arabera onartuko du gastua.

– Dirulaguntzak eman aurretik, emakida arautzen dituzten arauak edo oinarriak onartu beharko dira.

II KAPITULUA

PLANAREN EDUKIA

7. artikulua.

Plan honetan eta haren eranskinean zerrendatu dira Usurbilgo Udalak kudeatu beharreko dirulaguntzen lerro edo programa guztiak.

Dirulaguntza lerro edo programa bakoitzean hauek zehazten dira:

- Lortu nahi diren helburuak.
- Emakida mota aplikagarria.
- Hartzaileak.
- Diru kopurua.
- Aurrekontuaren aplikazioa.

8. artikulua.

Plan hau eranskin batean dago egituratuta, 2026 ekitaldirako aurrekontuan aurreikusitako jardueraren arabera.

Esleitutako zenbatekoak 2026ko ekitaldirako aurrekontuan onartutako diru-kopuruei dagozkienak dira. Hurrengo ekitaldietarako ez da aldaketa nabarmenik aurreikusten.

2027 eta 2028 urteetarako eranskin berriak onartuko ditu udalbatza plenoak, aurreko ekitaldi amaieran.

Aldiz, ekitaldian zehar esanguratsua ez den aldatetaren bat egin behar bada (urte horretarako soilik aurreikusten den lerro berri bat sartzea esaterako), alkatetza dekretuz bideratu ahal izango da aipatu aldateta.

Eranskin horretan diruz lagundutako jarduera zerrendatu eta xehatzen da, dirulaguntza ematen duten sailen arabera antolatuta.

Eranskin honek aurrekontuan aurreikusitako dirulaguntzak ordenatzen ditu, irizpide hauen arabera:

- Dirulaguntza ematen duen saila.
- Helburua. Dirulaguntza zertarako erabiliko den zehazten da, gero helburu hori ebaluatu ahal izateko.
- Kudeaketa mota. Dirulaguntza emateko aplikatu beharreko prozedura bereizten du (Norgehiagoka, Zuzena Izenduna, Zuzena Legeak Ezarria, Zuzena Interes Publikoagatik, Zuzena Urgentziagatik).
- Zenbatekoa. Dirulaguntza bakoitzerako aurreikusitako konsignazioa.

III KAPITULUA

ONURADUNAK ETA DIRULAGUNTZA XEDE DIREN ALORRAK

9. artikulua.

Udalak dirulaguntzak emango dizkie pertsona edo erakunde pribatuei, baldin eta gizarte-onurako edo -intereseko jarduerak egitea sustatzen badute edo udal eskumenari lotutako helburu publikoak lortzea sustatzen badute.

– La aprobación del gasto deber. llevarse a cabo de conformidad con los términos previstos en las normas presupuestarias aprobadas al efecto en el Ayuntamiento de Usurbil.

– De forma previa al otorgamiento de las subvenciones, deberán aprobarse las normas o bases reguladoras de la concesión.

CAPÍTULO II

CONTENIDOS DEL PLAN

Artículo 7.

En el presente Plan y su correspondiente anexo se relacionan la totalidad de líneas o programas diferentes de subvención a gestionar por el Ayuntamiento de Usurbil.

En cada una de las líneas o programas de subvención se detallan:

- Los objetivos que se pretenden alcanzar.
- La modalidad de concesión aplicable.
- Los destinatarios a los que van dirigidas.
- El importe económico.
- La aplicación presupuestaria.

Artículo 8.

Este Plan se estructura en un anexo, de conformidad con la actividad prevista presupuestariamente para el ejercicio 2026.

Los importes asignados son los correspondientes a las dotaciones aprobadas en el presupuesto para el ejercicio 2026. Para los siguientes ejercicios no se prevén variaciones significativas al respecto.

El Pleno aprobará, a finales del ejercicio anterior, los nuevos anexos para los años 2027 y 2028.

Si, por el contrario, a lo largo del ejercicio fuera necesario introducir alguna modificación no significativa (por ejemplo, introducir una nueva línea que sólo se prevé para ese año), dicha modificación podrá ser tramitada por decreto de alcaldía.

En dicho Anexo se lista y desglosa la actividad subvencional ordenada por Departamentos concedentes.

Este anexo ordena las subvenciones previstas presupuestariamente bajo los siguientes criterios:

- Departamento concedente.
- Objeto. Se especifica la finalidad para la que se destina la subvención, la cual será posteriormente objeto de evaluación.
- Modalidad de gestión. Distingue la previsión en cuanto al procedimiento a aplicar para su concesión (Concurrencia Competitiva, Directa Nominativa, Directa Establecida por Ley, Directa por Interés Público, Directa por Urgencia).
- Importe. Referido a la consignación prevista para cada subvención.

CAPÍTULO III

BENEFICIARIOS Y ÁREAS OBJETO DE SUBVENCIÓN

Artículo 9.

El Ayuntamiento concederá subvenciones a favor de personas o entidades privadas con la finalidad de fomentar la realización de actividades de utilidad o interés social o para promover la consecución de fines públicos atribuidos a la competencia local.

10. artikulua.

Usurbilgo Udalak hainbat dirulaguntza lerro ezarriko ditu urtero, honako eskumen-arlo hauetan:

- Euskara.
- Garapen ekonomikoa eta enplegua.
- Gazteria.
- Gizarte Zerbitzuak.
- Hezkuntza.
- Idazkaritza.
- Ingurumena.
- Jarduera Fisikoa eta Kirola.
- Kultura.
- Nekazaritza eta Abeltzantza.
- Aniztasuna.
- berdintasuna.
- Etxebizitza.

IV KAPITULUA

FINANTZAKETA

11. artikulua.

Usurbilgo Udalak ematen dituen dirulaguntzak bere diru funtsekin finantzatu dira, dagokion ekitaldiko Udal Gastuen Aurrekontuko IV eta VII kapituluaren kontura.

2026 urterako aurreikusitako zuzkidura ekonomikoa honako hau da: 977.760 €.

V KAPITULUA

DIRUZ LAGUNDUTAKO PROGRAMEN ERAGINKORTASUNAREN
AZTERKETA. EMAITZEN ANALISIA

12. artikulua.

Dirulaguntza bakoitzaren eraginkortasun mailaren azterketa egoki bat egiteko, emandako laguntza kudeatzen duten sailek txosten edo memoria bat eskatuko diete horien onuradunei; eta bertan modu arrazoituan azalduko dute lortu nahi dituen emaitzak lortzeko garatu diren ekintzen balioa.

13. artikulua.

Zehazki, eta dirulaguntza programa bakoitzaren oinarri zehatzek edo banakako hitzarmen edo akordioek gehitu dezaketen alde batera utzi gabe, ebaluaziorako honako hauek zehaztu beharko dira:

- Helburua.
- Dirulaguntza jasotzen duen erakundea, eta hala bada, laguntzailea.
- Dirulaguntzaren zenbatekoa.
- Dirulaguntzarekin egindako ekintza zehatzak.
- Diruz lagundutako ekintzak zenbat herritarrengan izan duen eragina.
- Dirulaguntza ematen duen departamenduaren balorazioa laguntza eman zenean lortu nahi ziren helburuekiko egokitasunari buruz eta dagokion programarekin jarraitzearen edo kentzearen bidez kototasunari buruz.

Artículo 10.

El Ayuntamiento de Usurbil establecerá anualmente diversas líneas de subvenciones en las siguientes áreas competenciales:

- Euskera.
- Desarrollo económico y empleo.
- Juventud.
- Servicios Sociales.
- Educación.
- Secretaría.
- Medio Ambiente.
- Actividad Física y Deporte.
- Cultura.
- Agricultura y Ganadería.
- Diversidad.
- Igualdad.
- Vivienda.

CAPÍTULO IV

FINANCIACIÓN

Artículo 11.

La financiación de las subvenciones que conceda el Ayuntamiento de Usurbil se llevará a cabo con fondos propios con cargo a los capítulos IV y VII del Presupuesto de Gastos Municipales del ejercicio correspondiente.

Para el año 2026 la dotación inicial prevista asciende a: 977.760 €.

CAPÍTULO V

EVALUACIÓN DE LA EFICACIA DE LOS PROGRAMAS
SUBVENCIONADOS. ANÁLISIS DE RESULTADOS

Artículo 12.

Para un adecuado análisis del grado de eficacia de cada subvención, los departamentos gestores de la ayuda concedida solicitarán a los beneficiarios de la misma un informe o memoria en el que figure de forma motivada la validez de las acciones desarrolladas para el logro de los resultados pretendidos.

Artículo 13.

En concreto, y sin perjuicio de que las bases específicas de cada programa de subvención o los convenios o acuerdos individuales puedan ampliar la información a aportar, se deberá detallar para la evaluación lo siguiente:

- Objeto.
- Entidad beneficiaria y, en su caso, colaboradora.
- Importe subvencionado.
- Acciones concretas desarrolladas en el importe de la subvención.
- Número de ciudadanos a los que ha alcanzado la acción subvencionada.
- Valoración del departamento concedente en cuanto a adecuación a los objetivos perseguidos al tiempo de su otorgamiento y la procedencia del mantenimiento o supresión del programa del que trae causa.

14. artikulua.

Dirulaguntza lerroaren kudeaketa daraman sailak edo hura izapidetzeko arduradunek, aurreko artikuluan aipatutako dokumentazioa ikusita, dirulaguntzen likidazioari/justifikazioari buruzko ebazpenarekin batera, dirulaguntza ematerakoan emandako laguntzarekin lortu nahi diren helburuak egokiak diren eta lortu diren baloratu beharko dute, bai eta eragin duen programa mantentzea edo, hala badagokio, aldatzea edo ezabatzea egozia den ere.

15. artikulua.

Gardentasunari dagokionez, lerro estrategiko bakoitzean emandako dirulaguntza guztiak urtero argitaratuko dira udal webgunean, bertan adieraziz laguntzak nori jaso dituen, zenbatekoa, eta diruz lagundutako ekintza.

VI KAPITULUA

DIRUZ LAGUNDUTAKO PROGRAMEN FINANTZA KONTROLA

16. artikulua.

Udaleko kontu-hartzailetzak egingo du diruz lagundutako programen finantza-kontrola, eta, horretarako, honako hauek aztertuko ditu: diruz lagundutako zenbatekoak ordaintzeko data errealak, erabilitako ordainbideak eta dirulaguntza lortzeko onuradun bakoitzari eskatutakoa zuzen justifikatu dela aztertuko du.

17. artikulua.

Aurrekoa alde batera utzi gabe, dirulaguntzak izapidetzeko ardura duten administrazio unitateetako arduradunek, txosten bidez, espedienteetan jasota utziko dute garapen edo izapide fase desberdinetan udal akordioak hartzeko legez eskatu daitezkeen betebeharrak bete direla (eskabideak onartzea, horiek baloratzea, emateko proposamena egitea eta laguntzen bukaera-ko justifikazioa eta azken likidazioa).

Horri dagokionez, Kontuhartzailetzak fiskalizazio- edo txosten-ereduak egin ahal izango ditu, eman beharreko dirulaguntzen kudeaketaz arduratzen diren administrazio-unitateek egin beharreko fiskalizazio- eta kontrol-lana errazteko.

VII KAPITULUA

PLANA EGIKARITZEKO ETA HURA AZTERTZEKO EKINTZEN KOORDINAZIOA

18. artikulua.

Planaren indarraldia amaituta, eta berria egin aurretik, Dirulaguntzen Batzorde Orokorra dagokion ebaluazioa egingo du. Bertan, gutxienez, honako hauek jaso beharko dira: Planaren betetze maila, lortu nahi ziren helburu eta eraginetan dirulaguntzek izan duten eraginkortasuna eta efizientzia eta ondorioak; eta horrekin batera, hurrengo Dirulaguntza Plan Estrategikoa egiteko iradokizunak.

Dirulaguntzen Batzorde Orokorra honako hauek osatzen dute:

- Alkatea.
- Udalean dirulaguntzak banatzen dituen batzorde bakoitzean lehendakaria eta teknikaria.
- Udal idazkaria.
- Udal kontu-hartzailea.

19. artikulua.

Ogasun Batzordeko lehendakariak ebaluaziotik ateratako ondorioen eta hurrengo Plan Estrategikoa egiteko iradokizunen proposamenaren berri emango dio aipatu batzorde horri.

Artículo 14.

Por parte de los departamentos gestores o responsables de su tramitación, a la vista de la documentación mencionada en el artículo anterior, se deberá, conjuntamente con la resolución que proceda respecto de la liquidación/justificación de las subvenciones, valorar la adecuación y consecución de los objetivos perseguidos con la ayuda concedida al tiempo de su otorgamiento, así como respecto de la procedencia del mantenimiento o, en su caso, modificación o supresión del programa del que trae causa.

Artículo 15.

Respecto a la Transparencia, todas las subvenciones concedidas en cada una de sus líneas estratégicas serán publicadas anualmente en la Web municipal, indicando entidad receptora, cuantía y proyecto que se subvenciona.

CAPÍTULO VI

CONTROL FINANCIERO DE LOS PROGRAMAS SUBVENCIONADOS

Artículo 16.

El control financiero de los programas subvencionados se realizará por la Intervención municipal, que al respecto analizará las fechas reales de pago de los importes subvencionados, los medios de pago utilizados y la correcta justificación de los extremos requeridos a cada beneficiario para la obtención de la subvención.

Artículo 17.

Sin perjuicio de lo anterior, por parte de los responsables de las diferentes unidades administrativas encargadas de la tramitación de las subvenciones, se dejará en el expediente debida constancia, mediante informe escrito acreditativo, del cumplimiento de los requisitos legalmente exigibles para la adopción de los necesarios acuerdos municipales, en sus diferentes fases de desarrollo o trámite (admisión de solicitudes, valoración de las mismas, elaboración de propuesta de concesión y justificación y liquidación final de las ayudas).

A este respecto, por la Intervención se podrán elaborar modelos de fiscalización o informe cara a facilitar la labor fiscalizadora y de control a desarrollar por las unidades Administrativas responsables de la gestión de las diferentes subvenciones a conceder.

CAPÍTULO VII

COORDINACIÓN DE ACTUACIONES PARA LA EJECUCIÓN DEL PLAN Y DE SU REVISIÓN

Artículo 18.

Finalizada la vigencia del Plan, y antes de la elaboración del siguiente, la Comisión General de Subvenciones evaluará el grado de cumplimiento del Plan, la eficacia y eficiencia del otorgamiento de subvenciones en la consecución de los objetivos y efectos pretendidos y conclusiones, con propuesta de sugerencias para la elaboración del siguiente Plan Estratégico de Subvenciones.

La Comisión General de Subvenciones está compuesta por:

- La alcaldesa o el alcalde.
- La presidenta o presidente y un/a técnico/a por cada comisión que distribuye las subvenciones en el ayuntamiento.
- La secretaria o el secretario municipal.
- La Interventora o el interventor municipal.

Artículo 19.

La presidenta o presidente de la Comisión de Hacienda dará cuenta ante dicha comisión de las conclusiones resultantes de la evaluación, y propuesta de sugerencias para la elaboración del siguiente Plan Estratégico.

DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA 2026

Saila: Euskara

Programaren deskribapena	Helburua	Hartzaileak	Dirulaguntza mota	Zenbatekoa 2026 (€)	Aurrekontu aplikazioa (2026)
Euskara ikasteko dirulaguntzak	Helduentzako euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak egin dituzten usurbildarrei dirulaguntzak ematea	Usurbilen erroldatutako pertsona fisikoak, alfabetatze-euskalduntze ikasketak egin dituztenak	Norgehiagoka	24.000	1.4200.480.335.00.01
Noaua!ri dirulaguntza	Noaua!ren aldizkaria eta webgunea diruz laguntzea	Noaua! Kultur elkarteak	Zuzena izenduna	74.000	1.4200.481.335.00.01
Araba euskaraz ekimenari dirulaguntza	Arabako ikastolak diruz laguntzea	Araba Euskaraz	Zuzena interes publikoagatik	800	1.4200.481.335.00.03
Kilometroak-ekimenari dirulaguntza	Gipuzkoako ikastolak diruz laguntzea	Kilometroak	Zuzena interes publikoagatik	800	1.4200.481.335.00.04
Nafarroa Oinez ekimenari dirulaguntza	Nafarroako ikastolak diruz laguntzea	Nafarroa Oinez	Zuzena interes publikoagatik	1.300	1.4200.481.335.00.05
Herri Urrats ekimenari dirulaguntza	Iparraldeko ikastolak diruz laguntzea	Herri Urrats	Zuzena interes publikoagatik	1.300	1.4200.481.335.00.06
Ibilaldia ekimenari dirulaguntza	Bizkaiko ikastolak diruz laguntzea	Ibilaldia	Zuzena interes publikoagatik	800	1.4200.481.335.00.07
Hizkuntz Eskubideen Behatokiari dirulaguntza	Hizkuntza eskubideak bermatzea helburu duen Behatokia erakundea diruz laguntzea	Behatokia	Zuzena izenduna	900	1.4200.481.335.00.08
Euskal Herrian Euskaraz egitasmoari dirulaguntza	Euskal Herrian Euskaraz diruz laguntzea	Euskal Herria Euskaraz	Zuzena izenduna	200	1.4200.481.335.00.09
Elhuyar Fundazioari dirulaguntza	Urteko lan programa garatzea	Elhuyar Fundazioa	Zuzena izenduna	10.000	1.4200.481.335.00.11
Lan munduko dirulaguntzak	Enpresetan euskara sustatu eta errotzeko dirulaguntzak ematea	Usurbilgo enpresak	Zuzena interes publikoagatik	2.000	1.4200.481.335.00.12

Saila: Garapen Ekonomikoa eta Enplegua

Programaren deskribapena	Helburua	Hartzaileak	Dirulaguntza mota	Zenbatekoa (2026) (€)	Aurrekontu aplikazioa (2026)
Herri merkataritza eta ostalaritza sustatzeko dirulaguntza	Merkataritza eta ostalaritzaren alorretan Usurbilgo herri merkataritza sustatu eta dinamizatzea helburu duten Hurbilago elkarteak bultzatu, antolatu edota parte hartutako urteko jardueretan laguntzea	Hurbilago, Usurbilgo merkataritza eta ostalaritza elkarteak	Zuzena izenduna	25.000	1.5000.481.431.00.01
Usurbilgo lokal hutsetan jarduera ekonomiko berri bat abian ipini nahi duen ekintzaileei laguntzeko dirulaguntza programa. 1. lerroa: enpresa ekimenak abiaraztearen hasierako gastuei aurre egiteko diru-laguntza. 2. lerroa: lokalaren alokairu edo erosketak gastuak ordaintzeko diru-laguntza	Hutsik geratu diren Usurbilgo lokalen berrerabilpena Berreskuratzea. Merkataritza,ostalaritza eta zerbituzen alorreko jarduera eta enpresa ekimen berriak sustatzea Kale eta eremu jakin batean biziberritze ekonomiko eta sozialerako lagungarria izango dela kontsideratzen den beste edozein jarduera sustatzea	Usurbilen hutsik dagoen lokal batean jarduera ekonomiko berri bat abian ipini nahi duen edonor, pertsona fisiko nahiz juridikoa, ekintzaile interesatuaren bizilekua edozein izanda, Usurbil edo beste udalerrri bat	Norgehiagoka	30.000	1.5000.481.431.00.02

Programaren deskribapena	Helburua	Hartzaileak	Dirulaguntza mota	Zenbatekoa (2026) (€)	Aurrekontu aplikazioa (2026)
Hasiz-hazi dirulaguntza, Kabiene elkarteak duen elkarlan gunearen erabilpenerako, proiektu berri bat duten ekintzaileei eta/edo enpresa sortua izanik lanerako leku bat behar duten pertsonen zuzendua	Kabiene eta Usurbilgo Udalaren arteko lankidetzan oinarritzen da. Lanerako espazio bat ez ezik, baliabideak eta esperientziak partekatze leku bat eskaintzea Alde batetik, Ekintzaileen ekimen berriak definitzen eta abiarazten laguntzea da helburua. Bestetik, lanerako leku bat eskaintzea. Beterri-Buruntzako ekinean zerbitzuaren laguntza eskaintzen zaie	-Usurbilgo udalerrian enpresa bat sortzeko ekimena dutenak. -Alde batetik, enpresa proiektu berri bat garatzen ari direnak, eta gehienez ere Jarduera berdinari dagokion ekonomi jardueren gaineko zergan 12 hilabetez alta emanda daudenak, diru-laguntzaren eskaera egiten duten datatik kontatzen hasita. -Bestetik, dirulaguntzaren eskaera momentutik JEZ-n hamabi hilabetetik gora daramaten enpresak eta lanerako leku bat behar dutenak. Beterri-Buruntza eskualdeko udalerriren batean (Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil) erroldatuta dauden pertsonak lehentasunez	Norgehiagoka	4.500	1.5000.481. 433.00.03

Saila: Gazteria

Programaren deskribapena	Helburua	Hartzaileak	Dirulaguntza mota	Zenbatekoa (2026) (€)	Aurrekontu aplikazioa (2026)
Aisialdiko begirale eta zuzendariak eta zuzendariak dirulaguntzak	Aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroa burutu dituzten herritarrei dirulaguntzak ematea	Aisialdiko begirale eta zuzendari ikasketak egin dituzten Usurbilen erroldatutako pertsona fisikoak	Norgehiagoka	4.500	1.4400.481. 326.00.01

Saila: Gizarte Zerbitzuak

Programaren deskribapena	Helburua	Hartzaileak	Dirulaguntza mota	Zenbatekoa (2026) (€)	Aurrekontu aplikazioa (2026)
Aurre-ikusi gabeko gizarte-zerbitzuetako egoera-premia bereziak	Gizarte-zerbitzuetan gizarte interesekoak diren beharretan diruz laguntzea	Elkarte, erakunde edo norbanakoak	Zuzena urgentziagatik	1.000	1.8000.480. 231.03.04
Pertsona eta familiei zuzendutako diru-laguntzak: Gizarte Larrialdietarako Laguntzak	Oinarritzko premietarako beharrak asetzea	Gizarte larrialdi egoeran dauden pertsonak	Zuzena legeak ezarria	50.000	1.8000.480. 231.03.01
Baliabide nahikorik ez dituztenei eta bestelako dirulaguntzak eskuratu ezin dituzten pertsonen oinarritzko beharrak asetzeko laguntza	Gizarte bazterkeria egoerak saihestea	Gizarte bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonak	Norgehiagoka	5.000	1.8000.480. 231.03.06

Programaren deskribapena	Helburua	Hartzaileak	Dirulaguntza mota	Zenbatekoa (2026) (€)	Aurrekontu aplikazioa (2026)
